

k:

Kultura

«Kapitain Frakasa» (Erein, 2021) orain dela 30 urteko liburua da, baina liburu berri bat da, Anjel Lertxundi egileak atzoko aurkezpenean azaldu zuenez. 1991ko istorioak hemen daude, baina liburu berri bat dago idazkuntza berri

bat dagoelako eta puzzlearen pieza berberak egonagatik horien antolamendua desberdina delako. 1960ko frantziar Estatuan kokatzen gaitu oriotarraren nobelak. Gerra Hartzaren garaia da, edo, literaturan, Susmoaren Aroa.

«Kapitain Frakasa»-ren «remake» bat aurkeztu du Anjel Lertxundik

Maidor IANTZI GOIENETXE | DONOSTIA


1960ko frantziar Estatuan egoera ez da batere gozoa. Gerra bukatu berri, Aljeriaren independentziaren auziak aztoratuta dauka jendartea. Herritarrek zantzak duten bezala zer jarrera hartu Aljeriako gerraren, Gobernuaren edota talde faxistaren aitzinean, iluntasun handiak daude boterean bertan ere. Horrek nobela beltz interesgarri bat sortzen du.

1991n argitaratu zuen Anjel Lertxundik (Orio, 1948) «Kapitain Frakasa», Ereinekin. 30 urte geroago, haren «remake» bat plazaratu du, argitaletxe berarekin. Istorioaren anbiguotasun horretan «pista gehiago ematen jardun naiz irakurleari, nik neuk ere liburua idatzi nuenean ez neuzkan pista batzuk», adierazi zuen, atzo, Donostian egindako aurkezpenean.

Liburua honela abiatzen da: Omega marka bat (pasaporte baten sinaduran) eta aieru baten indarrez nabarmendutako irudi bat (bi txori mokoka zeru mugetan). Pasaporte-mehatuaren hartzailea, talde mafioso baten barruan gainbehera etorritako gizon eroria, izen askoren atzean mozorrotu dena: Marcel, Cerdan, Osorio... Zein ote pasaportearen igorlea? Zein dago Omega markaren atzean?

Inazio Mujika editoreak ohar-tarazi zuenez, hasiera horrek antzekotasunak ditu «Otto Pette» Lertxundiren obra borobilaren abiapuntuarekin. Pertsona arrotz bat inguratzen da bietan, protagonistaren bizitza aldatuko duena. Edizioari buruz, nobelaren beste bertsio bat dela eta «gaurkotasun handikoa» dela nabarmendu zuen.

Mujikak erantsi zuenez, 1991ko abenduan kaleratu zenetik, egileak ez du «Kapitain Fra-



Anjel Lertxundi, «Kapitain Frakasa» nobelaren bertsio berria aurkezten, atzo Donostian.

Andoni CANELLADA | FOKU

kasa» berrargitaratu nahi izan orain arte. Hala azaldu zuen autorea horren arrazoia: «Esker-rak ez nuen garai hartan egin. Liburuaren berritzea orduan egin izan banu, arazo berdintsuekin geratuko nintzen, elementu batengatik: orduan baze- goen ahalegin berezi bat hizkera literarioa egokitzeko, bagenituen idazleok arazo horiek. Orduan erabaki nuen gelditzea, ikusten nuelako nobela honek balio zuela baldin eta hizkera literarioa gehiago lantzen bazen, baina ez geneukan 30 urteotako bide hori guztia egina».

Denbora hau pasata, «entusiasmo handiarekin» ekin zion liburuari. «Aldatua zegoen hizkera literarioa, gorabehera sin-

taktikoak argiago genituen, itzulpengintzari esker, besteak beste. Gaur liburu honek 30 urteko euskal literaturaren eskarmentua darama».

Baina hizkera ez da berrikuntza bakarra. «Liburua puzzle bat da. Pieza berdina dugu, baina antolamendu desberdin batek istorioa ere berritu egin du».

Zalantzetatik idatzia dago

Duela 30 urteko liburuak Antton Olariagaren azal eder bat zuen. Haren «remake»-a ere egin dute, erreferentzia egiten dion pelikula bereko fotograma bat baliatuz. Film hartan eta liburuan agertzen diren garaiko besteetan bezala, nobelan ez da inor inorekin fidatzen. Lehenda-

bizi, irakurlea ez dago dena irensteko prest. Idazlearengan ere susmoa dago pertsonaiengana. Ez du sentitzen irakurlearen fideltasun hori ere. Liburua zalantzetatik idatzita dago.

Zalantzen formulazioak badu zerikusirik teknika literarioarekin. «Demagun» batekin hasten da liburua. «Idazten hasi nintzen nebulosa batekin, pertsonaiak definituak izan gabe, baina lehendabiziko eszena idatzi nuen. Iluntasun horretan noa haztaka bezala istorioa konfiguratzeko. 30 urte geroago, pertsonaiak finago definituta daude, esajeratu gabe, baina beste gorputz bat hartzen dute. Hau berri- tutean ez nengoen orduan bezain biluzik; nobela

ezagutzen nuen, orduan nahi nintuen gauzak trukatu ditut, orain ikusten eta pentsatzen dudana- ren arabera».

Horrekin lotuta, honako gogo- eta egin zuen oriotarrak: «Denok ditugu gure biografian alde anbiguoak. Gure borondatearen arabera argitzen dira edo ez. Adinarekin beste forma bat hartzen dute, beste modu batera hurbiltzen gara, ulergarriago egiten zaizkigu, gure buruari barkatzen hasten gara».

Anbiguotasun hori bizitza da. Liburuan deskribatzen den Estatu frantsesa anbiguotasun horretan bizi da: badago egia ofiziala eta egia iluna, motibo politikoengatik, komenentzia sozialengatik... adierazi gabea.

Foo Fighter y sus experiencias paranormales inspiran la película "Studio 666"

San Sebastián Gastronomika rinde homenaje a Alain Ducasse

Euskal Kazetaritza Sariak banatu dira Bilbon

Beñat Axari Azkoitiko Matadeixen igande eguerdian

naiz: